

**Telebistako iragarki matxistak desmuntatzeko rol eta estereotipoen
inguruko esku-hartzea lehen hezkuntzan:
rolak ez ditu bi egi ezta begi.**

GRADU AMAIERAKO LANA

2021



EGILEA: Fernández Arzuaga, Ander

ZUZENDARIA: Madariaga López, Itsaso

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen helburu nagusia ikasleek egunerokotasunean, batez ere telebistan, sortzen diren egoera matxisten aurrean duten jarrera aztertzea izan da. Gainera, gizarteak pertsoneri etiketak jartzen dizkie, eta horiek eragina izan dute azken urteotan, Interneten eta sare sozialen erabilera ugaria izaten dela eta. Lan honen xedea aurrera ateratzeko, berrikuspen bibliografiko bat egin da artikulu, bideo, argazki eta telebistako iragarkien bidez. Horren ondorioz, lanean zehar hainbat egilen hitzak berreskuratu izan dira, hurrengo jardueretan praktikan jarri direnak. Esku-hartzea Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko gela baterako diseinatutako proposamen didaktikoa aurrera eraman da, 25 ikasleren parte hartzearen laguntzaz. Honetan, ikasle guztiek feminismoaren inguruko behaketa bat jaso dute, eta, mikromatxismoak daudela ondorioztatu ondoren, bidea eta zeregina eraiki egin da. Esku-hartzearen jardueren emaitza guztiak aztertzeko, galdetegi eta jarduera guztietan oinarritu egin da. Planteatutako helburuak oinarrituz, zer nolako erantzunak eman dituzte ikasleek aztertu dira. Emaitzei dagokionez, azkenengo egunetan argi geratu den bezala, mikromatxismoak hobeto identifikatzeko eta horien aurrean erantzuteko baliagarria izan dela lanketa hau egitea ikusi da. Gainera, ikasle batzuen interesa handitu da eta ikasleen emaitza akademikoak eta jokabideak hobetu dira, lagunak eta klasekideak errespetatzen, besteak beste.

Hitz gakoak: feminismoa, estereotipoak, iragarkiak, eskolako harremanak

RESUMEN

El objetivo principal de este trabajo de fin de grado ha sido analizar la actitud de los alumnos ante las situaciones machistas que surgen en el día a día, sobre todo en la televisión. Además, la sociedad pone etiquetas a las personas, que han influido en los últimos años debido al uso abundante de Internet y las redes sociales. Para sacar adelante el objeto de este trabajo, se ha llevado a cabo una revisión bibliográfica a través de artículos, vídeos, fotografías y anuncios de televisión, lo que ha llevado a recuperar a lo largo del trabajo palabras de diferentes autores que se han puesto en práctica en las siguientes actividades. Se ha llevado a cabo la propuesta didáctica diseñada para un aula de tercer ciclo de Educación Primaria, con la participación de 25 alumnos y alumnas. En esto, todos los alumnos y todas las alumnas han recibido una observación sobre el feminismo y, tras concluir que hay micromachismos, se ha construido el camino y la tarea. Para analizar

todos los resultados de las actividades de la intervención se ha basado en todos los cuestionarios y actividades. Se han analizado las respuestas del alumnado en base a los objetivos planteados. En cuanto a los resultados, tal y como ha quedado claro en los últimos días, se ha observado que la elaboración de esta elaboración ha servido para identificar y responder mejor a los micromachismos. Además, ha aumentado el interés de algunos alumnos y alumnas, y se han mejorado los resultados académicos y las conductas de los mismos y mismas, respetando a amigos y amigas y compañeros y compañeras de clase, entre otros.

Palabras clave: feminismo, estereotipo, anuncios, relaciones escolares

ABSTRACT

The main purpose of this end-of-term work has been to examine the attitude of students in the current state of affairs, especially on television. In addition, society puts labels on people who have been affected in recent years by the increased use of the Internet and social media. For the purposes of this work, a bibliographic revision has been made in the form of articles, video, photographs, and television commercials, resulting in the recovery of the words of various authors in the work, which have been put into practice in subsequent activities. The didactic proposal designed for a third cycle room in the First Nation has been put forward, aided by the participation of 25 students. In this, all students have received an observation on feminism, and after concluding that there are micromachisms, the path and the role are built. It has been based on all questionnaires and activities to examine the results of the intervention activities. On the basis of the established goals, what answers have been given by the students have been examined. As far as the results are concerned, as has been evident in recent days, this cultivation has been useful in identifying and responding to micromachisms. In addition, the interest of some students has been increased and academic results and practices have been improved, including respect for friends and class members.

Keywords: feminism, stereotypes, ads, school relationships

AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	5
2.	MARKO TEORIKOA.....	6
2.1.	Internet-aren garrantzia. Ikus kultura eta eskola.....	6
2.2.	Generoaren trataera eta hezkuntza.....	10
2.3.	Feminismoa eta eskola.....	11
2.4.	Publizitatea eta estereotipoak: iragarkiak.....	13
2.5.	Helburuak.....	15
2.6.	Justifikazioa.....	16
2.7.	Hipotesia.....	17
3.	METODOA.....	18
3.1.	Parte hartzaileak eta testuingurua.....	19
3.2.	Tresnak.....	20
4.	LANAREN GARAPENA.....	21
4.1.	Helburuak	21
4.2.	Esku-hartzearen diseinua eta aplikazioa.....	22
4.3.	Emaitzak (Proposamen didaktikoaren diseinuaren aplikazioa)	23
4.3.1.	Jardueren emaitzak.....	24
5.	ONDORIOAK.....	27
5.1.	Ondorio orokorrak.....	27
5.2.	Hobekuntzarako proposamenak.....	31
6.	BIBLIOGRAFIA	33
7.	ERANSKINAK.....	35
7.1.	“Maskulinitasun hegemonikoaren esanahia eta ondorioak ulertzen” galdetegia.....	35
7.2.	“Iragarkiak desmontatzen” galdetegia.....	36
7.3.	Hirugarren jarduera.....	35
7.3.1.	Hirugarren jardueraren analitzeko erabili den gidoi bat.....	36
7.3.2.	Hirugarren jarduera ebaluatzeko erabili den taula.....	36
7.4.	Laugarren jardueraren kartelak.....	37
7.5.	“Zer ikasi dugu?” galdetegia.....	38
7.6.	Lehenengo jardueran adibide moduan erabilitako iragarkiak.....	39
7.7.	Jarduerak garatuta.....	40
7.8.	Ikasleek erantzun dituzten galdetegiak.....	44
7.9.	Lehenengo jardueran erabili den power pointa.....	46
7.10.	Jatorrizko azalarentzako egindako ideia-hodeia.....	47

1. SARRERA

Feminismoaren gaia eskola barruan lantzea garrantzitsua da, gizarte osoa zuzenean biltzen duen gai bat delako: matxismoa. Esku hartzearen osoan zehar, desinformazio asko egon dela gai honen inguruan nabarmendu da eta, beraz, gehiago landu behar da.

Gaur egungo ikasleek proposatzen duten hezkuntzari buelta bat eman behar zaio, nahiz eta eskolak hezkuntza feminista eskaini. Gai hori oso integratuta dago gure gizartean, eta hezkuntza-sistemak irakasgaiak edo baliabideak eskeini behar ditu, ikasgeletan berdintasunaren gaia gehiago landu ahal izateko. Baliabide horiei esker, gure gizartean dauden jarrera matxistak ekiditu ahal dira. Hala eta guztiz ere, konnotazio sexistadun zenbait balio ematen dira irakasleen aldetik, jarrera horiek baimenduta ez daudelako hezkuntza zentroan. Gainera, ikasleek oso integratuta dute sare sozialen erabilera, eta, beraz, telebistarena. Bertan, egungo proiektatzen diren iragarki matxista asko islatu dira, eta agertzen diren bideo edo informazio guztia ez dela guztiz egokia ulertu behar dute.

Iragarki matxistak inguruko ezagutzak izateko informazioa bilatu da, hezkuntza zentroetan feminismoari eta berdintasunari behar den garrantzia ez diotelako ematen. Horretarako, ikasleen aurrezagutzak kontuan hartuz, elementu teknologikoekin eta ikasleen parte hartzearekin, iragarki matxisten kritika bat sortu nahi izan da. Horren ondorioz, proiektu honek ondorio positiboak izan ditu, ikasle gehienek ikuspuntua aldatzen hasi delako.

Jarraian aurkezten den gradu amaierako lanak sei atal nagusi ditu: Marko teorikoaren atala azalduko da, helburuak eta justifikazioa adieraziz. Gainera, proiektu hau landu ahal izateko, generoan eta hezkuntzan oinarritutako egileen informazioa erabili da, feminismoa, sare sozialak eta publizitatea kontuan hartuz. Horren ostean, atal praktikoan, metodoa eta jarduerak azalduko dira eta jarraian aipatutako jardueren emaitzak baloratuko dira. Azkenik, gradu amaierako lanaren ondorioak azalduko dira eta hobekuntzak aipatuko dira.

Lan honen bidez, telebistan agertu diren iragarki matxista batzuk desmuntatu nahi izan dira, antzerkien eta kartel batzuen elaborazioaren bitartez. Aipatutako jarduerak ikasleak arazo hori gaur egun existitzen dela ohartzeko balio izan dute. Izan ere, proiektuaren hasieran iraganeko gauza bat zela uste zuten, gure egungo gizartean lekurik ez zuena.

2. MARKO TEORIKOA

Lanaren hasiera honetan, atal teorikoa landu da, gero praktikan ipini ahal izateko. Proiektuaren atal honen amaieran justifikazioa, helburu nagusiak eta hipotesi txiki bat ere agertuko dira. Atal horiek lanean zehar orokorrak dira, egin diren jardueren helburuak aurrerago agertuko baitira.

Iragarki matxistak inguruko ezagutzak izateko, bilaketa hau 4 alde desberdinetatik abiatuta egon da, internet-aren garrantzia, generoaren trataera eta hezkuntza, feminismoa eta eskola eta publizitatea eta estereotipoak. Dena den, gai bakoitzaren barruan informazio espezifikoa agertzen da, eta honek iturri bibliografikoekin lotuta dago.

2.1 Internet-aren garrantzia. Ikus kultura eta eskola

IKT-ek (informazioaren eta komunikazioren teknologiak) pertsonen arteko komunikazioa errazagoa izatea lortu dute. Informazioa partekatzea gai-zerrendan dago. Pertsonen eta profesionalen arteko komunikazio-metodoak aldatzen ari direla dio Arenanak (2019), bai eta enpresak pertsonekin harremanetan nola hasten diren ere. Asko dira informazioarekin bonbardatzen dituzten hedabide digitalak: blogak, sare sozialak, bilatzaileak, etab. Egoera horrek larritasuna, urduritasuna eta ezinegona sor dezake, iristen den input horietatik zerbait galtzeko beldurrez sortzen duelako. Egoera honi Infoxikazioa deitzen zaio eta gero eta zailagoa da sarean eduki garrantzitsua eta kontrastatua aurkitzea.

Howard Rheingoldek "La comunidad virtual" (2012) izenburu bereko liburu batean hitz egiten du. Historia modu berri batez hitz egiten du, non lankidetzak, ekintza kolektiboa eta interdependentzia konplexuak gizakiaren garapenean paper garrantzitsua jokatzen hasi diren. Horregatik, UMB birtualak (2019) dio sareen garrantzia edo beharra ukaezina dela gaur egun, gero eta sare sozial gehiago daudela Interneten eta espezifikoagoak agertzen direla, irudiak edo argazkiak argitaratzen diren kasuetan. Horien artean, pertsonak edo enpresek Instagramen bidez argitaratzen dituzte bideoak eta argazkiak. Orduan, bideoak argitaratu behar badituzte YouTuberen bidez egiten dute eta profesionalki harremanetan jarri nahi badute, Linkedinen bidez egiten dute.

Sareek 2004tik gure artean daramatela dio (Camacho, 2019), eta, orduetik, haien erabileraren hazkundera eta merkataritza-tresna gisa duten garrantzia sendotu besterik ez

dela egin. Pertsona batek sare sozial eraginkorrak izaten baditu, egunero elikatzen egon dela suposatuko du. Izan ere, marka-diseinu argia dute eta estilo zehatza dute. Gainera, marken boterea sendotu eta nabarmentzen dute, eskaintako produktuari edo zerbitzuari kalitatea eta konfiantza emanaz.

Azken aditu honek dio bere aholkua dela profesionalen esku jartzea, horiek baitira benetan sareetan eguneratuta daudenak, jakiten da nola diseinatu horietan komunikazio-planak, eta, batez ere, sektore bakoitzean eskuragarri dauden baliabideak maximizatzen lagunduko dute, ezarritako helburuak sare sozial horietan egindako ahaleginen arrakastara egokitzeo (Camacho, 2019).

Ahalegin horiek interesa eta motibazioa aplikatuz, sare sozialen abantailak gauzatzen dira. Horretarako, pertsonen arteko parte-hartzea eta elkarlana bultzatzea beharra dago, erabiltzaileei edozein lekutatik lineako proiektu batean parte hartzeko aukera ematen dietelako. Gainera, identitate pertsonala edo birtuala eraikitzea ahalbidetzen dute, erabiltzaileei aukera ematen dietelako gainerako zibernetekin era guztietako informazioa partekatzeko. Beraz, pertsonen arteko harremanak errazten dituzte eta une bakoitzean eskatutako informazioa lortzea errazten dute. Adituek diotenez (2010), ikasgelatik kanpoko ikaskuntza integrala errazten dute, eta eskuratutako kontzeptuak praktikan jartzea ahalbidetzen dute.

Haur eta nerabeen kasuan, helduek arreta mantentzen ez dutenean, internetera kontrolik gabe sartzeko bide gehiago uzten die. Kanariasen Gobernuak (2015) dio ordenagailuak edo tabletak ez badu webgune desagokietarako sarbidea mugatzen duen iragazkirik, ustekabeen edo lagun eta estimulu berriak bilatuz, mota guztietako edukiak, zerbitzuak eta pertsonak aurkituko dira bertan, eta ez dira beti fidagarriak eta komenigarriak izango adin guztietarako. Eta jakin-minez hasten denak adikzioa eragin dezake, haurrak eta nerabeak erraz limurtzen baitira. Zoritxarrez, heldu askok ez dute arrisku horien berri, neurri batean telebistarekin eta bideo-jokoekin ematen ziren, eta orain Interneten ugaritzen ari dira, gero eta jende gehiago dago etxean, eskoletan, ziberkafetegietan eta smartphone-etan.

Interneteko funtzionalitate guztiek (web-orrietan nabigatzea, weblogak eta webguneak argitaratzea, posta elektronikoa, berehalako mezularitza, foroak, txatak, kudeaketak eta merkataritza elektronikoa, aisialdirako inguruneak) arriskuren bat izan dezakete, "Mundu fisikoan" egiten ditugun jardueretan gertatzen den bezala. Interneten kasuan, honako arrisku hauek nabarmentzen ditu Kanariasen Gobernuak (2015):

Hasteko, informazioarekin lotutakoak aipatzen ditu Gobernuak. Honek dio informazioa ez dela oso fidagarria eta faltsua eskuratzen dela, eta horregatik sakabanatzea, denbora galtzea dela esaten du. Gainera, hurrek informazio desegokia eta beren adinerako kaltegarria eskuratzen dute eta informazio hori arriskutsua, moralaren aurkakoa, legez kontrakoa da askotan; esate baterako, haur-pornografia, indarkeria, arrazakeria edo terrorismoa.

Bigarrenik komunikazioarekin lotutakoak daude. Erkidego honen Gobernuak dio postontzia blokeatzen dela, "zabor-mezuak" eta mezu iraingarriak jasotzen direla. Honek intimitatea galtzen dela, legez kanpoko ekintzak (hirugarren pertsonen datuak zabaltzea, izurritea, mehatxuak egitea, etab.) gertatzen direla eta konpainia txarrak daudela esan nahi du.

Jarraitzeko, jarduera ekonomikoekin lotutakoak aipatzen dira. Hauetan iruzurrak, gehiegizko publizitateak eragindako erosketak, adingabeek aitaren baimenik gabe erostea eta lapurretak dira nagusi. Gobernuak dio jabetza intelektuala urratzeagatiko delituzko jarduketak gertatuz, legez kanpoko negozioak egitea suposatzen dela eta telefono-gastu neurrigabeak ere gauzatzen direla.

Bukatzeko, internetaren azkenengo arriskua adikzioekin lotutakoa da. Informazioa bilatzeko mendekotasuna, sare sozialetara joateko mendekotasuna, joko konpultsiboa eta erosketa konpultsiboak gertatzen dira. Beraz, substantzietatik mendekotasuna duten pertsonekin gertatzen den bezala, sare sozialekiko mendekotasuna duten nerabeek abstinentzia-sindromea izaten dute konektatu ezin direnean, eta ondoez emozional sakona, disforia, loezina, suminkortasuna eta egonezina ditu ezaugarri (Mas, 2020).

Aditu guztiak ados daude Internet-en informazio asko dabilzala. Izan ere, kalkulazina da. Eta, diziplina askotan gertatzen den bezala, erabiltzaileok eremu guztiak menderatzen ditugula pentsatzen dugu, eta, batzuetan, iturriak kontrastatu gabe bidaltzen dugu informazioa. Honekin batera, Googlen bilaketaren bat egiten denean, berehala lortzen dira milioika emaitza. Horregatik, Cuellarrek (2020) zerranda batean erakusten ditu Interneteko iturriak eta edukiak egiaztatzeke iruzkin batzuk:

Non argitaratu den garrantzitsua da; kontuan izan egunkarietatik, gobernuaren atarrietatik, erakunde akademikoetatik edo erreferentziazko beste bitarteko batzuetatik ateratzen diren datuek sinesgarritasun handiagoa dutela zalantzazko profesionaltasuna duten beste

hedabide batzuetan daudenek baino. Gainera, egile bakoitzaren atzean erakunde bat dago, eta ideologia markaturik ez badu ere, finantzatzen duten erakundeek badute. Beste puntu garrantzitsua bat harremanetarako aukera da. Bitarteko fidagarri eta sinesgarri batek harremanetarako telefono bat, helbide elektronikoa bat edo harekin elkarreragiteko inprimaki bat erakutsiko die entzuleei. Beraz, aipatu beharra dago Cuellarrek (2020) interneteko edukien inguruko iruzkinak plazaratzen ditu.

Gai gehiegi erabiltzea artikulua bakar batean edo gai asko biltzen dituen komunikabide bat susmagarria izaten da. Izan ere, askotan, babestutako artikulua argitaratzea eta dirua irabaztea baino bilatzen ez duten hedabideak dira. Horiek eduki zaharra izaten dira. Denbora asko argitaratu gabe daraman webgune bat ziurrenik ez dago eguneratuta garatu dituen gai buruz. Profesionaltasun gutxi izatea artikulua idazteko. Ondorioz, inori ez zaio gustatzen beren lana zabaltzea, edo okerrago, kopiatzea. Kalitatezko edukien egileak eskertzen eta aipatzen ditu. Horrela, sarean eduki onak sustatzen laguntzen dira, besteok sinestu dituztenak.

2.1.1. Ikus kultura eta argazkien erabilera

Kultura bisuala-ri dagokionez, Hernandez-ek (2000) dio ikuspegi posmodernoaren zenbait ideia eta pentsamenduekin bat egiten dituela termino honek: kultur-artekotasuna, feminismoa, ekologia, zibergunea, ikuskizuna. Lafonek (2017) dio ikusmenaren bidez hobeto ulertzen duen kultura batean bizi garela. Baina horrek ez du esan nahi ikusmenaren bidez "soilik" denik. Hala ere, prentsak eta argitaletxeen munduak XIX. mendea markatu zuten bezala, eta garai hori bere ezaugarrien bidez aztertzen denez, esan dezakegu ikusizko kulturak markatzen duela gaur egungo aroa. Lafonek (2017) jarraitzen du esaten pertsona bakoitzak gauza desberdin ikusten dituela, eta, beraz, gure argazkiak desberdinak izango direla. Pertsona bakoitzaren motibazioak eta ezagutza desberdinak dira, eta, beraz, argazki bat ateratzeko asmoa ere desberdina izango da. Argazkigintzarekin argazki politik ateratzeaz gain, mezu bat helaraz dezakegu (Arias, 2017). Historian zehar argazki ikonikoen lekuko izan garela dio autore honek, hain zuzen ere, une hartan oso garrantzitsua izan zen mezu oso zehatz bat transmititzeagatik.

Batzuetan sentsibilitateak zauritzen dituen ohituraz beteriko konposizioak, errebelatzeko eta hiriko edo herrialdeko galeria ezagunenetako hormetan zintzilikatzeko prest daude (Navarro, 2017). Horren ondorioz, emakume batzuk argazkigintzari lotutako mugimendu feminista bateko kide bihurtzen dira, zein den emakumearen papera adieraziz, besteak beste. Baina

askok ez dute hori nahi, beren kausa haratago doala diote, beren argazkiek ez dutela soilik atentzioa ematen gorputzeko aldarrikapen batean, non kanonak hausteko diren edo biluztasunak sexualetik oso urrun dagoen esanahia duen. Aditu honen ustez emakume izateak dakarren konplexutasunaz hitz egiten dute, eta irudi hutsa gainditzen duen ikus-entzunezko lengoaia batekin egiten dute, *performance*, *audiolibro* edo bidaia-gida moduko bat bihurtzeko. Diziplina anitzekoak dira, eta eskura dituzten baliabide artistiko guztiak erabiltzen dituzte beren obra osotasun bihurtzeko. Osotasun hori identitate baten bilaketan eta ulertzen ez duten gizarte bati egindako kritikan laburbiltzen da.

2.2 Generoaren trataera eta hezkuntza

Sarean genero-berdintasunari buruzko hainbat ikerketa egiten dira, matxismoa lotutako terminoak erabiltzen diren edo ez jakiteko. Indarkeria matxista izenez ezagutzen den gaitza, azken urteetan izan du gorakada oso altua. Ideia hau Lomas-ek (2011) defendatzen du. Gainera, geitzen du feminismoaren aldeko urteak, talde aktibisten eta iritzi-liderren bidez lortu dutela komunikabideetan lekua izatea. Bestalde, Lomas-ek (2011) dio ikusten dela genero-berdintasuna honako hauekin lotuta dagoela: zientziaren eta teknologiaren arloan emakume profesionalen presentzia sustatzea helburu duten erakundeak sortzearekin eta abian jartzearekin, familiei eta eskolei zuzendutako ikus-entzunezko material didaktikoak zabaltzearekin, eta berdintasunaren aldeko jarrera duten edo desberdintasunaz baliatzen diren zinema-kanpainak abiaraztearekin, gizartean oihartzun handiagoa izateko.

Egia esan, munduko ia herrialde guztietan dago sexuen arteko desberdintasun-arazoren bat, beren ezaugarrien arabera, nahiz eta sexuek oso forma desberdinak har ditzaketen. Hainbat erakunde eta organismo aspalditik saiatzen ari dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen, hezkidetzazko programa eta material zehatzen bidez, pertsonen hezkuntza integrala lortzeko, herritartasun- eta demokrazia-balioetan oinarritutako prestakuntzaren bidez, genero-justizia lortu ahal izateko.

Familia eta komunikabideekin batera, eskola, "Uno de los escenarios en los que se transmite la memoria colectiva y esas identidades y saberes socialmente legitimados" (Lomas, 2011), sozializazio-erakunde nagusietako bat da, eta generoen arteko berdintasuna sustatzeko leku garrantzitsua, eta hori ez da soilik bertatik igarotzen delako biztanleriaren gehiengoa. Izan ere, eskolatzearen betebeharra modu egokian aplikatzen da.

Hezkuntzaren eremuari dagokionez, zenbait autonomia-erkidegok LGTBI*(Lesbiana, Gay, Bisexual, Transgénero, Transexual, Travesti, Intersexual eta Queer), berdintasuna eta diskriminaziorik eza ikusarazteko neurri zehatzak eta hezkuntza-ekintzak jasotzen dituzten legeak aldarrikatu dituzte. Horren ondorioz, nahiz eta batzuetan esparru bat egon hezkuntza-eremuan sexu-dibertsitateak, identitateak eta genero-adierazpenak lantzeko, dibertsitate horiek ez dira garatu, inplementatu edo finantzatu, eta, beraz, asmo huts gisa geratu da. Beste kasu batzuetan, gogoeta sakon eta seriorik ere ez da egiten LGTBI* pertsonak hezkuntza-eremuan babesteko eta sexismorik gabeko eremu bat, LGTBI* fobia eta hezkuntza-inguruneetan, oro har, zapalkuntza- edo indarkeria-jokabideak bultzatzeko moduari buruz.

“La educación es garantía de cambio, la dimensión de ciudadanía es principio básico de una sociedad democrática sostenida por elementos fundamentales de equidad, justicia e igualdad en los derechos” (Torres, 2017: 10 o.).

Euskadiri dagokionez, ez du neurri espezifikorik jasotzen. Hezkuntzari buruzko hiru artikulua oso orokor garatu ditu nagusiki, adierazten dute euskal administrazio publikoak honako metodo hauek ziurtatuko dituela: Aniztasunarekiko ulermena eta errespetua areagotzeko balio duten curriculumak eta hezkuntza-baliabideak genero-identitateak, ikasleen eta haien ildo horretan, gurasoek eta senitartekoek neurri guztiak hartuko dituztela bermatuko du. Beharrezkoak izatea ikasle, langile eta irakasle transexualentzako babes egokia. Diskriminazio, gizarte-bazterketa eta nortasun-arrazoiengatik indarkeria mota guztien aurka. Generoa, jazarpena eta jazarpena barne, eskola-eremuan

2.3 Feminismoa eta eskola

Searak (2020) dio feminismoa matxismoaren aurka doala, genero-indarkeriaren aurka, baina feminismoak ere emakumeen eskubideak oztopatu nahi dituela. Hori dela eta, aditu honek galdetzen du ea zer gertatuko litzatekeen Frantziako Iraultzari buruz aztertzean Olympe de Gouges ere aipatzen bada. Izan ere, emakume hori kondenatu egin zuten, historiaren atal honetan emakumearen eskubideak gizonaren berdintasun-egoera berean defendatzeagatik. Baina, zer gertatuko litzateke esklabotzaren abolizioari buruz edo beste aldarrikapen askori buruz hitz egitean, mugimendu feministari buruz hitz egiten badute? Mugimendu feministak lortu zuen lehen aldiz emakumeak botoa emateko eskubidea

aitortzea. Baina, zer gertatuko litzateke historian zehar emakumea ikusezin bihurtu, menderatu eta adingabe gisa hartu izanari buruz hitz egingo balute?

Estereotipoak dira oso txikitatik borrokatu behar direnak, neskatoek panpinekin eta sukaldeekin jolasten dutela dioten estereotipoak, mutikoek borroka-autoekin edo espazio-ontziekin jolasten dutela diotenak, mutikoak urdinez jantzten dituzten estereotipoak eta neskatoak arrosaz jantzten dituztenak. ACNUDH-ek (Giza Eskubideen Nazio Batuak) (2014) adierazten duenez, oinarritzko eskubideak eta askatasunak urratzen dituenean, genero-estereotipoak erabiltzea kaltegarria da.

Ana María Ortega Motak (2016) egiten dituen gomendioetako batzuk partekatzen ditu "feminismoa eskolan" artikuluan, non eskoletan genero-berdintasuna sustatzeko moduari buruz hitz egiten dena, bai eta hezkuntza-komunitateak etorkizunean genero-indarkeriara eramanez estereotipoen transmisioa saihesteko moduari buruz ere. Baina esan beharra dago, irakasleak ere funtsezko zeregina du, eta hori da estereotipoak hausten hasi behar duena. Horregatik, Ana María Ortega Motak (2016) hurrengo gomendioak zehazten ditu:

- Jarduera edo jolas berberetan parte hartzen laguntzea.
- Ekitatea sustatzen duten ipuinak, abestiak eta material didaktikoa erabiltzea.
- Genero-rolari buruz hausnartzen lagunduko dieten talde-dinamikak egitea.
- Haurrei sentimenduak modu askean adierazteko aukera ematea.
- Eguneko denbora ematea komunikabideetan ikusten dituzten estereotipoak aztertzeko.
- Hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea.
- Gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko espazioak erraztea.

Zergatik da garrantzitsua feminismoa eta berdintasuna eskoletan irakastea? (Ngonzie Adichie, 2014). Matxismoa ikasi egiten da; berdintasuna ere bai. Non bizi garela aditu honek galdetzen du. Gizarte kontraesankorra adingabeentzat eta gazteentzat, denok berdina garela esaten zaielako, baina hori ez da guztiz egia. Errealitatea oso bestelakoa da. Gure gizarte oso desberdina da emakumeentzat, adierazle guztiek erakusten diguten bezala: genero-indarkeria, langabezia, soldata-arraila, emandako orduak emakumeetatik zainketetara. Desberdintasun sakon horrek eragin zuzena emakumeen bizitzan eta gure gizartearen garapenean. Eta, bide bakarra emakumeak eta gizonak nahi bezala biziko diren gizarte beren nahien, ametsen, proiektuen eta gaitasunen arabera bizitzea berdintasunean heziz (Valera, 2016).

Aditu honen ustetan, historian zehar mundu justuago eta demokratikoago bat egiteko lan egin duten emakumeen izenak, bizitzak eta ekarpenak ezagutu behar direla esaten du. Hezkuntza-komunitateak prestakuntza eta ezagutzak behar ditu curriculumean txertatu ahal izateko, material eta liburuetan presente egon daitezen eta erreferenteak sortu ahal izateko. Neskek eta mutilek ikasgeletan historiari, kulturari edo ekonomiari buruzko ikuspegi errealagoa eta osoagoa izatea behar da, eta, horretarako, ezinbestekoa da ahaztuta, zentsuratuta eta ezezagunak diren milaka edo milioika emakume berreskuratzea, gizaki guztiak gure patua aukeratzeko aske izan gaitezen lortu nahi izan baitzuten.

Bestalde, José María Espada Calpek (2004) dio maskulinitasun hegemonikoa maskulinitasunaren forma dela, nagusi eta kulturalki baimendu eta baimentzailea, ordena sozial jakin batean. Aditu honek (2004) azpimarratzen du maskulinitasunaren bertsio hegemonikoen erretorika oso sinesgarria dela, gizona izateak esan nahi duenaren mistifikazioan oinarritzen delako. Izan ere, sexismoak, botere-makroegitura, botere-harremanak hedatuz eta legitimatuz jarduten duten ideologia horiek sortzen ditu. Zentzu horretan, Calpek (2004) dio mendekotasuna ikusezin bihurtzen dela eta plano ez-kontziente batean geratzen dela. Baina pertsonen arteko boterea ez da desberdintasun makrostrukturalen deribazio hutsa, eguneroko bizitzan berreraiki, desafiatu, egokitu, negoziatu edo berretsi egiten delako.

Hala ere, orain arte, gure gizartean ez dago gizon izateko modu bakar bat ere, maskulinitate hegemonikoa nagusitzen da, maskulinitasun toxikoa ere esaten zaiona, gizonen nagusitasuna eta emakumeen mendekotasuna bermatzen dituena. Puedes decir no elkarteak (2018) maskulinitate hegemonikoak patriarkatua berresten duela uste du. Horrela, gizonen ingurunearen eta mezu estereotipatuaren bidez ikasten dute emakumearen aurkako indarkeria, eta mezu horietan esaten zaie nola izan behar duten eta nola izan behar duten emakumearen gaineko kontrola. Baina gaur egun, matxismoa gizarte askotan dagoela aipatzen du bere lerroetan, maskulinitasun hegemonikoaren bertsio errepikatua delako eta indarkeria sortzeko arrisku-faktorea delako (Puedes decir no, 2018).

2.4 Publizitatea eta estereotipoak: iragarkiak

Komunikatzeko tresnek, hala nola argazki-kamerak, irratiak, zinemak edo telebistak, erabat aldatu zuten komunikatzeko modua, edozein gizakirengana iritsi zitekeen ezagutza askoz ere eskuragarriagoa bihurtuz. Ideia hau Yolanda Dominguez-ek (2021) dio (64 o.) eta

uste du edukiak ez direla aldatzen, baina haien irismena biderkatzen bada, eta beraz, menderatzeko gaitasuna ere bai. Gainera, publizitatea gertaeretatik abiatzen dela uste du. Baina John Bergerrek (1972) dio publizitatearentzat benetako gertaera guztiak ezezagunak direla eta ezezagunei bakarrik gertatzen zaizkiela. Publizitateak eragin handia duela eta garrantzi handiko fenomeno politikoa dela ere gehitzen du. Hala ere, bere eskaintza estua da, bere erreferentziak zabalak baitira (153 o.).

1930etik aurrera irudiak gure etxeetara sartu ziren telebistari esker. Yolanda Dominguezek (2021) dio edozein distantziatetik edozer gauza ikusteko aukera ematen digun asmakizun horrek ez duela axola zein apartatuta dagoen ikusi nahi duguna, hau da, jateko orduan telebista bero zerbitzatzen digula. Hori bai eskaintza murriztua du. Hemengo munduaren zatia, begiratoki horretatik sar gaitezke, gure etxeko horman zulotxo txiki bat egingo bagenu bezain mugatua da. Gainera, pentsa dezakegu irudiak banatzeko gailu honen zeregin nagusia informazioa edozein herritarri hurbiltzea dela, baina mundua prestakuntza oso zabala denez, norbaitek zer informazio eskaini eta zer ezkutatu erabaki behar du. (66 o.)

Irudiekiko interesa etengabe hazten da komunikatzeko tresna nagusi bihurtu arte, eta hitza sinbolo abstraktu bat da, esanahia ulertzeko interpretazio-jarduera bat eskatzen duena. (Dominguez, 2021). Aditu honek (2021) uste du irudiari ez zaiola prozesu mental hori eskatzen, baina hori ez eskatzeak ez du esan nahi ezin dugunik modu gogoetatsu eta arrazionalen begiratu behar dugunik. Normalean egiazkotzat jotzen duguna onartzen dugu, sare sozialetako beste ikuspegi batzuekin alderatu gabe. Zalantza gehiago izaten dugu edozein pertsonak edukiak sortu ahal dituenik. Egile honek uste du irudi kopuru hori kontsumitzen dugula, eta gero denbora gutxi ematen dugula emozioetan oinarritutako azaleko irakurketa aplikatzen dugun bakoitzarentzat (Dominguez, 2021). Ez da gomendagarria irudiak izatea gure informazio-iturri bakarra. Gure ezagutza ikusgaitasunera murrizteak errealitatearen ulermena ere murrizten du (72 o.).

Informazioa ulertzeko gizakiok erabiltzen dugun estrategietako bat informazioa taldekatu eta ordenatzea da, hierarkiak eta etiketak jarritz. Ordena eta etiketa horiek bat datoz beste pertsona batzuek guk baino lehen erabaki duten ikuspegi partzialarekin. Egileak azpimarratu duenez, hori da bereziki: estereotipoak, hainbat gizarte-talderen irudikapenak, masa-bitartekoen bidez hedatuak eta pertsona gehienek beren gain hartuak (Dominguez, 2021:73).

Gainera, Dominguez-ek (2021) azpimarratzen du: “Podría parecer que existen estereotipos positivos a determinados grupos sociales, pero la idea de limitar en un único rol a cualquier tipo de personas puede tener consecuencias negativas más allá de que la cualidad que se le asocie parezca positiva” (79 o.)

Gero eta gehiago dira bezeroen kexengatik erretiratu behar izan diren publizitate-kanpainen kasuak (81 o.). Noizbehinka printzesa bat dugu kotxeak gidatzen eta beste gizon batek garbigailuak jartzen, esate baterako. Baina gizarte-ondasun bat egitean edo denda berri bat irekitzerakoan zer publizitate mota erabili behar den ez da oso argi geratu. (82 o.). Baina Dominguez egileak (2021:83) galdera hau egin du: nola lortu ahal dira estereotiporik gabeko irudiak?

Han-ek (2015) uste du gaur egun ezin dela ederren politikarik egin, egungo politika agindu sistematikoen mende baitago erabat (85 o.). Aldiz, Dominguezek (2021) dio hurrek kulturatik ikasten dutela gizartearentzako saria edo zigorra dutena, eta aintzatetsiak eta balioetsiak izateagatik ikasten dutenak zirela, nahiz eta horrek esan nahi duen beren gorputza eraldatu behar dutela kirurgia estetikoko argi-ebakuntzekin (28 o.). Amaitzeko, Dominguezek (2021) dio horrek guztiak ikusleen portaerak dituen ondorioak egiazkoak direla. Zinema-areto batean sartzeak edo ipuin bat entzuteak ez gaitu entretenitzen soilik: gure bizitza beti alda dezake (31 o.).

2.5 HELBURUAK

Proiektuari dagokionez, lan honek pisu handia izan dezake hezkuntza feminista formakuntza garatzerako orduan. Horren ondorioz eta lehenengo helburuari dagokionez, pertsona askoren ikuspuntua aldatu ahal da, hezkuntza feminista irakasten bada. Era honetan, hezkuntza eta aukeratutako gai hau lantzen denean hainbat irizpide garrantzitsu hartzen dira kontutan: esate baterako, zer posizioa hartu beharra dagoen, zer paper jokatu behar duten gizon eta emakumeek feminismoa defendatzean, zer arazo dagoen berdinasunaren inguruan eta gizarteak nola ikusten duen, gizarteak zer etiketa jartzen dituen genero bakoitzari...

Hezkuntza gizartearen oinarria (Fernandez, 2013) dela argi dago, atzera begiratu gero, aurreko belaunaldietan gertatu diren aldaketa handienak hezkuntzaren ondorio izan direla uste du aditu honek. Matxinadarik esanguratsuenak gertatu dira jendeak hezkuntza nahi zuelako, edo berdintasunezko hezkuntza nahi zuelako, esate baterako. Beste aditu batek,

Nuria Coronadok (2019), berak egindako liburu batean dio gizon batzuek borroka honetan lehenengo papera hartzen dutela eta superfeministak direla. Baina kontua ez da liderrak izatea berriz ere, bizi garen gizarte desorekatuaz kontziente izatea delako, eguneroko ekintzetan zein agerikoenetan aliatuak izatea, protagonistak, zoritxarrez, emakumeak izan behar direlako. Irakasleen helburu nagusia ideia hau zabaltzea izan behar da, emakumeen garrantzia erakustea, gizartean berdintasunean bizi ahal izateko.

Izan ere, emakumeek borroka handia egin behar izan dute pertsona gisa aitortuak izan daitezen, eta, orain, irakasleen ariketak belaunaldi berriei erakutsi behar die oraindik ere badirela haien aurkako arazoak. Gainera, teknologia berriak erabiltzearen helburuak proiektu dinamikoagoa eta gaurkotuagoa egiten laguntzen du. Hala ere, metodo tradizionalak erabiltzea, ikasleen parte hartzea eta interesa handituko du, gaur egungo hezkuntza proiektuetan oso barneratuta ez daudelako.

2.6 JUSTIFIKAZIOA

Helburua zehaztuta, lan honen zergaitia azaldu behar da. Gasteizko eskola publiko eta pribatuetan ez dela feminismoa bezain den moduan lantzen, beharrezkoa den garrantzia ez diotelako ematen. Bakarrik urteko programan agertzen dena azaltzen dute. Orduan, eskola batean publizitatearen inguruko jarduera batzuk lantzea aproposa izango litzateke. Gainera, bertan lortu daitezkeen emaitzak erabilgarriak eta esanguratsuak izango lirateke, esperotako emaitzak eta lana hasi aurretik planteatutako helburuak bat egiten duten aztertzeke. Horrez gain, buruan dagoen gai honekiko kritika jakitea izango litzateke ere beste aukera bat, gizonek ere feminismoaren inguruan duten ikuskera jakiteko eta zein izan behar dutena azaltzeko.

Proiektu honen helburuari erantzuteko zer pentsatzen duten jakiteko eta gaur egungo belaunaldiei zertaz hitz egin zaiela kontuan izateko galdetu behar zaie, batez ere Lehen Hezkuntzako haur mutilei. Horretarako, esku-hartzea eta formakuntza ezinbestekoa izango da, berdintasunean hezteko eta gizarte feminista bat eraikitzen hasi ahal izateko

2.7 HIPOTESIA

Proiektu honen bitartez, ikastolan feminismoaren inguruko lanketa behatu nahi izan da, hipotesi nagusia hurrengo izanik: *ikasle guztien harremanak kontuan hartuz, mikromatxismoak ekiditzeko lanketa egiten da*. Hipotesi honetatik abiatuta, ikasleen ezagutza propioa eta ondorengo azalpenetatik egingo da. Ere iragarkien eta honen funtzioa zein den ulertu behar dute, planteatutako jarduerak ulertu ahal izateko.

3. METODOA

Atal honi dagokionez, aipatutako teoria guztia aplikatzeko beharrezkoa den atal praktikoa da. Honetan, teoria baliatuz esku-hartze didaktiko bat egingo da. Gainera, lehen planteatutako helburuak kontuan hartuz, zer lortu nahi den eta nola egingo den agertuko da atal honetan. Azkenean, helburuak lortzeko proposamena agertu ondoren, zer nolako jarraipena izango duen azalduko da, hau da, epe luzerako edo denbora mugatu batean aplikatzeko izango bada.

Aipatu den teoria aztertzeko, zenbait metodo erabiliko dira. Horien artean, ikasle guztien aurrekariak jakingo dira eta bidea eta zeregina eraikitzen hasiko da. Baina, esku-hartzea egin aurretik, testuingurua jakin beharra dago, eta behaketa bat eginez, informazioa eskura izango da. Beste modu bat, galdera batzuen erantzunen bitartez hasiko da lana, horrela ikasleen interesak jakingo dira, eta zer nolako ikuspuntua izan ahal duten lehenengo momentuan eta zer gabezi dagoen adieraziko da.

Gainera, argazkiak eta bideoak erabiliko dira esku hartzea eta proiektua errazteko, bisualak diren elementuak hobeak dira ikasleek zerbait hobeto ulertzeko. Orduan, argazkien eta bideoen laguntzaz eta azertu nahi dena azaltzeko publizitatearen garrantzia, oso munta handikoa dela ondorioztatzen da, gizarteak horrela bihurtu duelako. Guztion artean gure bizitzaren parte oso inportanteak bihurtu dituzte, nahi dugun informazioa lortzen delako. Azken ideia hau ere behatuko da, ea nola erantzuten duten edozein mikromatxismoaren aurrera jakiteko.

Lanaren aurreko ataletan aipatu den bezala, diseinu didaktiko bat sortu da, landu den gelako arazo batean oinarritzen dena. Horri dagokionez, galdera honi erantzun nahi izan zaio: nola saihestu mikromatxismoak ikasgelan?. Galdera horri erantzun ahal izateko, hainbat egiletan oinarrituta (Yolanda Dominguez eta bere liburu maldito estereotipo (2021), adibidez), Lehen Hezkuntzako etapari aplikatutako jarduera batzuk egin dira.

Orduan, teoria eta praktikaren arteko harremana egin ahal izateko eta diseinu didaktikoa sortu ahal izateko, hezkuntza curriculum ofiziala eta egin den esku-hartzea batu behar izan dira, hurrengo taularen laguntzaz. Beheko atalean agertzen den taula hura, Heziberri 2020 (2015) planaren barruan ezarritako dago. Kasu honetan, Lehen Hezkuntzako gaitasunetan, edukietan, helburuetan eta ebaluazio irizpidetan oinarrituta dago. Azpi atal guzti hauek, esku-hartzearen atal praktikoaren atalarekin lotuta daude.

Gaitasunak	<p><u>Elkarbizitzarako kompetentzia:</u> Norberaren eta besteren nahiak asebetze daitezzen uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea parte hartzearen eta galdetegiaren bitartez eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.</p> <p><u>Norbera izaten ikasteko kompetentzia:</u> Portaera soziala eta morala autorregulatzea</p>
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> • Informazioa antolatzea, bilatzea, testualizatzea eta berrikustea • Ahozko interakzio-egoeretan nagusi diren arauak aintzat hartzea: besteen iritziekiko errespetua, kortesia-arauak • Esku-hartzean zehar landutako genero testualen oinarrizko ezaugarriak identifikatzea: iragarkiak
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Mikromatxismoak gure gizartean oraindik daudela ohartzea eta ekiditzea • Errespetuz eta elkarrekin lan egiteko gogoz bai ahoz eta bai idatziz komunikatzeko gai izatea • Generoa, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea antzezpen eta argazki baten bitartez
Ebaluazio adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Badaki ikasgelan erabili ohi den hiztegia zaintzen eta mikromatxismoak ekiditzen • Gai da beste iritziak entzuteko eta bere iritziarekin parte hartzeko: kortesia arauak errespetatzen ditu • Badaki informazioa antolatzen, bilatzen eta egoera desberdinetan zein den arazoa identifikatzen

1. taula. Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum eta esku-hartzearen arteko taula

3.2 PARTE-HARTZAILEAK ETA TESTUINGURUA

Diseinatutako proposamen didaktikoa, Gasteizko ikastetxe publiko batean eraman da aurrera, Lehen Hezkuntzako seigarren mailako 25 ikasleen artean. Honetan, gelan egindako lehen behaketa-astearen ondoren, ikusi izan da 11 urteko ikasleen artean arazo handi bat dagoela: desinformazio handia dagoela gai horri buruz, eta, aldi berean, interes handia dagoela feminismoari buruz. Zoritxarrez, mutilek barre egiten dute gai honi buruz hitz egiten dutenean. Gainera, ekintza horiekin mikromatxismoak egiten zituztela nabaritu da. Orduan, planteatutako ideia landu ahal izateko, genero-estereotipoak gaur egungo gizartean hain integratuta dauden komunikabideekin elkartzea garrantzitsua da.

3.3 TRESNAK

Erabiliko diren tresnak hurrengoak dira: Behaketak, galdetegiak, argazkiak eta iritzi desberdinak. Lehenengo behaketaren tresna oso baliagarria da klasearen funtzionamendua ikusteko eta zer gabezi dauden konturatzeko. Honekin batera, elkarrizketak baliagarria dira arazo horren informazio gehiago edukitzeko. Baina, gai jakin baten informazio gehiago edukitzeko, nire kasuan, mikromatxismoen eta estereotipoen inguruko informazio gehiago edukitzeko, galdetegiak beharrezkoak izan dira. Izan ere, bakoitzaren interesek eta paper garrantzitsu bat jokatzen dute.

Bestalde, planteatutako guztia, parte teorikoan egongo da diseinatuta, baina, praktikara eramanez ahal izateko eta gai honekiko bakoitzaren interesa adierazteko, bideoak, antzerkiak eta argazkiak baliagarriak dira. Ere, iritzi desberdinei esker, debate bat sor daiteke, non bakoitzaren posizionamendua eta ideia mentala adierazten den. Modu honetan, proiektu honen zehar metodo hauek erabiliko dira, eta jarduera bakoitzean zer papera jokatzen duen tresna bakoitzak azaltzen da.

4. LANAREN GARAPENA

Atal honetan, diseinatutako ekintza bakoitzaren azalpena eta jarduerak praktikan jartzean gertatu dena agertzen da. Proposatutako bost ekintzak onuragarriak izan direla frogatzeko, jarduera bakoitzak bere ebaluazioa izango du eta horretarako behaketa-fitxa desberdinak sortu egin dira. Dena den, jardueretan baliagarritasuna prozesuaren amaieran ebaluatuko da, ikasleek egin dituzten bi galdetegiaren erantzunak alderatuz, lehenengoa eta azkenengoa bereziki.

4.1 Helburuak

Erabilitako metodologiak estereotipoekin lan egiten du, hau da, hauen esanahia eta zer ondorio egon ahal direla lantzen da, eta, horren ondorioz, egoera desberdin batzuk gauzatuko dira. Egoera hauen aurrean gertatuko diren hainbat arazo eta hauei irtenbidea bilatzea helburu bat izango da. Gainera, emakumeen desberdintasunak aintzat hartuz, errespetua izateko eta giza eskubideak errespetatzea ezinbestekoa da ohartzea. Izan ere, arazo erreal bat dela komentatzea ezinbestekoa da, eta horregatik talde-lanean jardutea, elkarlanean, elkartasunez eta modu konstruktiboan lan egin beharko dute.

Bestalde, besteen nortasuna errespetatzea eta autoestimua garatzea, zein taldeetan jokatu beharreko eginkizunak egin behar direla ohartzeko. Horretarako, arrazionaltasuna, emozien kontrola eta enpatia erabiliko dira. Autonomia garatu eta bizikidetzaren arauak, errespetuzko joera eskeintzeko eta gatazkak identifikatzeko eta aztertzeko. Horrela, berdintasuneko jarrerak sustatutako dira, diskriminazioa dakarten estereotipoak, aurreiritziak eta rolak arbuizatzen. Izan ere, emakumeei eragiten dieten arazoak jendearen eta taldeen portaeren balioespen etikoa egiteko irizpidetzat hartzeko.

Orduan, helburu orokorrak aipatu ondoren, lan honen helburu zehatzak agertuko dira. Agertuko diren helburuak, hurrengoan oinarritzen dira: Tradiziozko diren telebistako iragarkiak eskeintzen den mezua aztertzea.

- A. Iragarkien mezua kritika identifikatzea
- B. Iragarkietan parte hartzen duten pertsonaien rolak aldatzea eta zergaitia ulertzea
- C. Iragarkien eta bere mezua oso zabala izan daitekeela ulertzea
- D. Iragarkien antzezpenean irakaslearen estrategia eta proiektua erakargarriak direla aztertzea generoaren oreka mantentzeko.

Honekin batera, zeintzuk izan diren mutilen eta emakumeen erantzunak bereiztuko dira, klasearen arazo nagusia genero berezi batean zentratuta dagoelako. Orduan, planteatutakoa egiaztatze aldera, interneteko argazki batzuk ikusi eta galdetegi bat egin zuten, zeintzuk diren haien aurrezagutzak jakiteko. Galdetegi horretan zer den estereotipo bat, zergatik dagoen emakumeen eta gizonezkoen arteko aldea eta zein den neska-mutilek janzten duten arropa galderak erantzun behar izan zuten.

4.2 Esku-hartzearen diseinua eta aplikazioa

Arazo batetik abiatuta dagoen esku-hartze bat denez, ikasgelan aurrera eramateko lau ekintza hauek diseinatu dira. Lehenengoa, haien aurrezagutzak neurtzeko bideoak ikusiko dira, hurrengoan iragarkiak analizatuko dira eta azkenik antzeztuko eta kartel batzuk sortuko dituzte.

Proiektuari hasiera emateko eta aurrez ezarritako helburuak bete ahal izateko, lehen jarduera honetan power point bat aurrezagutzak pizteko eta bideo batzuk ikusiko dira. Lehenengo, power point horretan agertu den informazioa maskulinitatearen ingurukoa izango da, interneten agertzen diren argazki batzuk alderatuz. Bestalde, jarritako bideo horietan emakumeak eta gizonak eguneroko jarduerak egiten agertuko dira, etxeko lanak egiten adibidez. Hori dela eta, galdetegi bat osatu eta eranskinen atalean agertzen diren galderei erantzun beharko diete.

Lehenengo bideoak aztertu eta iragarkiak direla ondorioztatu ondoren, ikasle bakoitzak bere bideoa aztertuko du. Bideo horiek Interneten bilatu beharko dituzte. Gainera, iragarki matxistak izan beharko dute, eta bideoak ez errepikatze esteka dokumentu batean itsatsi beharko dute. Iragarki bakoitzaren amaieran, zer ikusi duten aipatuko dute, eskua altxatuz eta beste txandak errespetatuz. Gero, binaka ipini, eta matxismoaren zergatia aztertu eta identifikatu dute ordenagailuetan. Ondoren, orrialde zurietan apuntatuko dute eranskinetan agertzen diren galderak eta iragarkiaren traskripzioa idatziko eta beste generoarekin aldatuko da, hau da, emakume batek esaten dituen esaldi guztiak gizon batek esango ditu, eta alderantziz.

Iragarki bakoitzaren gidoiak landu ondoren, eta pertsonaien generoa aldatu ondoren, iragarki hori klasean egin beharko dute, antzerki baten bitartez. Jarduera horretan, bikoteko bi pertsonak ez ezik, iragarkia behar bezala egin ahal izateko estra gisa behar duten pertsona guztiek ere egin ahal izango dute iragarkia. Orduan, eranskinetan agertzen den

orrian, jarduera honen hainbat puntu baloratuko dira, hau da, ez bakarrik eszenaratzean edo gidoia ikastean, baizik eta beste kide batzuen kanpoko laguntza, ahalik eta errealena gera dadin.

Behin antzerki guztiak egin eta bideo guztiak ikusi ondoren, azken fasean, iragarki hori irudikatu eta kritika bat egingo da, mezu baten bitartez. Mezu hori adostu ondoren, iragarkiaren zati bat aukeratu beharko da A3 folioan edo nahi den materialean kaptura hori itsasteko. Horrela, lelo bat sortuko da eta, irakurri diren mikromatxismoen aurkako borroka ekiditzeko, dauden beste alderdi batzuk kontuan izango dira, mezu bat helarazteko.



1.argazkia: 4. jardueraren bi kartel

4.3. Emaitzak (Proposamen didaktikoaren diseinuaren aplikazioa)

Esku-hartzearen emaitzak aztertzeko, galdetegi eta jarduera guztietan oinarrituko da atal hau. Planteatutako diren helburuak oinarrituz, zer nolako erantzunak eman dituzte ikasleek aztertuko dira. (Ikasleek galdetegien bitartez eman dituzten erantzunak eranskinetan, 8.8 atalean, agertzen dira)

4.3.1. Jardueren emaitzak

1. jarduera

Galdetegiaren erantzunek argi eta garbi adierazi dute ikasle guztiek ez daukatela argi zer den estereotipo bat, haien egunerokotasunaren termino bat ez dagoelako oso barneratuta. Era berean, ikasleek ez dute barneratu estereotipo hitzak zer esan nahi duen, nahiz eta irudiekin eta adibideekin azaldu zer esan nahi duen. Gainera, esanahiaren kontrakoa idatzi dute, izan ere, oro har, gezur hutsa dela adierazi dute, konparazioak eta pertsonak ditugun bizimoduak. Hala ere, neska gutxi batzuek arreta handiagoa jarri diote azalpenari, eta emakumeak ez direla gizonak baino ahulagoak emakume izateagatik eta estereotipoak gizarteak uste dituen itxurak direla ulertu dute.

Dena den emakumeen eta gizonen arteko aldea erantzuteko, mutilek ez dagoela aldea erantzun dute edota jendea matxista edo feminista delako. Ordea, klaseko neskek matxismoa dagoela, pertsonak batzuk gizonak indartsuagoak direla esaten dutela eta oraindik ez dagoela genero berdintasuna adierazi dute. Ondorioz, klasearen erdiak baino gehiagok berdintasuna ez dagoela argi dauka, klaseko mutil gehienek kontrakoa esan arren.

Horrez gain eta lehenengo galdetegia amaitzeko, zein koloretakoa den neska-mutilek janzten duten arroparen galderaren erantzunak oso positiboak izan dira, ikasle guztiek ez dagoela generorik arropa janzterako orduan esan dutelako. Gainera, askotan idatzi dute pertsona bakoitzak nahi duen kolorekoa eraman dezala edo edozein arropa mota eraman dezakela idatzi dute.

2. jarduera

Aurrezagutzak eta hasiera emateko, esku-hartzearen bigarren jardueraren galdetegia aztertuko da. Iragarki matxista batzuk ikusi ondoren, jarrera eta ideia mental oso desberdinak aurkitu dira bi generoetan.

Alde batetik, mutilek ez dute ondorioztatu modu sakonean zer iruditu zaizkien bideoak. Azalpen batzuk egon badira ere, azalpenak oso pobreak izan dira, "gaizki", "zaharrak" edo "matxistak" idatzi dituztelako. Baina hori gutxi izango balitz, galdera honetan ez ezik, beste bi galderetan ere erantzun dute. Ez dute sakonago azaldu nahi izan iragarkietan gizonak modu autoritarioan agertzen direla, hala nola, erregeak edo boteretsuak, edo, aldiz, ez dute

emakumeek iragarkietan duten zereginean sakondu nahi izan. Aipatu beharra dago ez dutela arazorik ikusi emakumea neskame edo etxekoandre izateko.

Beste aldetik, klaseko nesken erantzunak oso interesgarriak izan dira, azalpen asko eta era askotarikoak eta justifikatuak idatzi dituztelako. Beraz, haien generoko pertsonak ikusi ondoren, indartsuak, esklabo moduan eta etxeko lanak egiten izan dira nagusi. Honek errealitatea zein den argi ikusi dutela esan nahi du. Hori dela eta, iragarkietan agertu diren gizonen papera ere argi ikusi dute, alferrak, erregeak bezala, agintzen emakumeari eta ondo jantzita idatzi dutelako. Orduan, beti gizonak agertzen direla lehenengo paperean eta oso matxistak direla esan dute, emakumeari ez diotelako uzten beste gauzak egiten edo ez direlako agertzen lasaiak edo atsedean bat hartzen.

3. jarduera

3. jarduera honetan talde txikiak neska-mutilek osatu egin dituzte, hau da, bi generoek. Baina osatutako bi taldek salbuespen, neskak bakarrik eta mutilak bakarrik egon dira. Alde batetik, neskak bakarrik egon diren taldean serioago hartu dute, mozorratu, talde lana sustatuz, power point bat eginez eta gidioia prestatu eta ikasia aurrera eramez. Beste aldetik, mutilak bakarrik egon diren taldean ez dute ezer prestatu ezta egin. Hala ere, gainontzeko talde mistoek interes handia adierazi dute jarduera osoan zehar, beti informazio eta gidioi desberdinak eginez.

Ordea, errespetua ez da nagusi izan lan taldean eta beste taldeen arteko harremanean, haien txanda izan ezik, beste ikaskideen tarteetan hitz egiten egon direlako. Gainera, klaseko mutil batzuk talde bat bere antzerkia egiten egon direnean, grazia handia egin die bikote hori paperean sartzeak. Horrez gain, iragarki matxista batean agertu den "asi planchaba asi asi" abestia abesten egon da. Klasearen gainontzekoek abesti hori ez abesteko eskatu diote, baina mutil horrek, besteen atentzioa edukita, jarraitu egin du abesti hori abesten.

4. jarduera

Antzerkiak eta iragarkien kartelak egin ondoren, azkenengo galdetegia egin dute, esku-hartzearen ebaluazio finala burutzeko eta proiektu honen amaiera emateko. Horretarako, lehenengo eta bigarren jardueren galdera batzuk erantzun dituzte, ea prozesu osoaren ondoren ulertu duten zer den estereotipo bat eta zer papera daukaten mutilek eta neskek aztertutako iragarkietan.

Lehenengo eta behin, jarduerak desberdinak burutu izan dituztela eta modu ez zuzenean landu dutela zer den estereotipo hitza. Honek batzuk barneratzea zer den eta beste batzuek ez ulertzen zer den suposatu du. Alde batetik, mutil gehienek ez dute ulertu zer den, rol aldaketa edo berdinak garen termino bat dela idatzi dutelako. Neska kopuru handiak, aldiz, ulertu du, baina erantzun oso anitzak irakurri dira; hala nola, irainak direla, pertsona izategatik jartzen dizun etiketa, ezberdintasunak direla edo pertsona batzuen sentimenduak direla.

Hala eta guztiz ere, iragarkien ondorioak ateratzeko, oso argi izan du ia klase osoak, ikusi duelako zer papera duen genero bakoitzak eta nola jokutzen duten iragarki bakoitzean. Adibidez, mutilek gizon indartsuak, boteretsuak eta ezer egiten, eta emakume langileak, zerbitzariak eta triste ikusi dute. Eta neskek gizon alferrak, harroputzak eta sufriarazten dutela emakumeak, eta emakume langileak, triste, sukaldariak eta beti gonarekin jantzita ikusi dute.



2. argazkia: ikasgelan kartelen erakusketa

5. ONDORIOAK

Iragarki matxistak desmontatu dituen txosten honetan, behaketa luze baten ondorioz eta tresna desberdinak erabili ondoren, emaitzak aztertzeko bide bat sortu da. Bide honetan ikasleei pautak batzuk eman zaizkie horrelako egoerak azkarrago identifikatzeko eta salatzeke. Modu berean, bide hau kontuan hartuta ez ezik, gai honekiko gaur egungo egoera eta lehen hezkuntzako klase bat lantzea oso interesgarria izan da ere.

5.1. Ondorio orokorrak

Atal hau hasteko, lanaren eranskin atalean (7.10) agertzen den marrazkia aipatu behar da. Pertsona bat islatu nahi izan da, edo, pertsona baten silueta. Bertan kolore tradizionalak, adierazten dituzten genero desberdinak agertzen dira, urdina eta arrosa, hain zuzen ere. Kasu honetan, lanaren barruan, genero bat definitzen duen kolorerik ez dagoela ikusi ahal izan da. Horrez gain, pertsonaren siluetaren barruan, neska-mutilek idatzi dituzten hitzak daude, adibidez estereotipoaren hitza, diseinu didaktikoan esanguratsuak izan dena. Bestalde, izenburuari dagokionez, esaldi horretan telebistan agertu izan diren iragarki batzuen kritika egin izan delako. Gainera, "Rolak ez ditu bi egi ezta bi begi" azpigituluarekin, bakoitzak duen egia norberaren rolaekin bat egiten duela islatu nahi izan da, hau da, bakoitzak sentitzen den generoarekin aurrera egin behar du, eta hori da benetazko egia, ez beste pertsona batek esaten duena. Horrez gain, azalean agertzen den kartela, azken jardueraren emaitza da, proiektu guztiak laburbiltzen duen argazki bat delako.

Pertsonen errealitatea frogatzeko, beren aurpegia da. Hori ispilu baten modukoa da. Horregatik, eta adingabeen konfidentziasuna dela eta, jardueretan agertu diren pertsonen aurpegiak ez dira agertu. Orduan, pentsatu da pertsona haiek une horietan sentitzen dutela jakiteko, aurpegietan emotikono batzuk jartzea izan da, une hartako sententzioa eta keinuak irudikatu ahal izateko.

Estereotipoen gaia ez da gela batean modu zuzenean asko lantzen, Lehen Hezkuntzako etapan lantzeko gai konplexua delako. Baina 11 eta 12 urteko ikasleekin gelan esku-hartzea egin denez, askoz errazagoa izan da jarduerak egitea 7 urteko haurrekin egitea baino. Horrela, helduago landu da gaia, eta gizartean oraindik ere matxismoa dagoela ikusteko eta adibide desberdinekin azaltzeko emaitza izan duela argi egon da.

Hala ere, jarduerak planteatu aurretik sortutako helburuak edo esperotako emaitzak ez dira horrelakoak izan, esku-hartzearen prozesua behin eta berriz aldatu delako. Baina esan beharra dago, proiektuaren hasieran, interes handia sortu dela ikasleen aldetik, gauza berria eta desberdina delako, eredu tradizionaletik kanpo: Haien parte-hartzearen bidez eta irakas-materialetik kanpoko gaiekin lan egingo zela zen aldaketa.

Lortutako emaitzak baliotsuak dira, baina ez nahikoak, ondorioztatu delako gelako mutilak konturatu daitezkeela eta serioago har dezaketela iragarkietan matxismoaren arazoa. Azpimarratu beharra dago haur mutilek, neskek ez bezalako jarrera izan dutela, lehenengo minututik azalpenekiko jarrera positiboa dutelako. Bestalde, eta aurreko paragrafoan esan bezala, neskek interes handia erakutsi dute, iragarki askotan islatuta ikusi dutelako beren burua, eta gelan izandako edozein jarrera matxistari edo mikromatxismoari erantzun ahal izan diote. Adibidez, mutil batek orratza bat hartu eta emakumea ematen zuela esan dute. Behin hori entzunda, gelako pertsona batzuek, batez ere emakumeek, esan egin diote emakumea delako berak ere garbitzeko tresnak hartu behar dituela, eta ez ditu horregatik bereizten. Era berean, konturatu dira maskulinitate hegemonikoaren esanahia haiengandik oso hurbil dagoela, eta ez dela batere atsegina ikaskideak gelako liderrak etengabe sentitzen ikustea. Harrigarria izan da inork hegemoniko hitzaren esanahiari buruz galdetu ez izana, hitz hori ez delako arrunta ikasgelako ikasleen artean. Gainera, oso interesgarria izan da "can you hear me now? Good" mezua aukeratu izana, mezu horren bidez iragarkiak kritikatzeko saiatu direlako. Galdera eta baieztapen horrekin, eta ikasleen argazkiekin, pertsonen eskubideak kritikatu eta horien alde borrokatzeko giroa sortu da, batez ere emakumeena.

Aztertutako iragarki horiek ikasleek aukeratu dituzte. Binaka ipini eta haiek internetean iragarki matxista den iragarki bat aukeratu izan dute. Ikusi da guztiek lehenaldian agertutako bideoak aukeratu dituztela, gure egunetan matxismorik ez zegoela uste dutelako. Orduan, sare sozialetan ezta beste komunikabideetan ere ez, ez dagoela gaur egun matxismoa uste izan dute. Baina, orainaldiko bideoak ikusi ondoren, oraindik etxe gehienetan dauzkagun pantailetan matxismoa irudikatuta agertzen dela ondorioztatu dute.

Marko teorikoaren 2.3 atalean, aipatutako Ana María Ortega Motaren (2016) gomendioetara bueltatuz, bere zehaztapenak diseinuaren praktikan bete diren ala ez ondorioztatuko da: Argi egon da jarduera edo jolas berberetan parte hartzen lagundu egin direla, talde mistoak egin dituztelako. Horrek genero-rolari buruz hausnartzen lagunduko dieten talde-dinamikak egitea lagundu die, eta besteen iritziak errespetatu ere egin dituzte. Jarraian, ondorioztatu

duzen beste gauza bat eguneko denbora luzea ematea komunikabideetan ikusten dituzten estereotipoak aztertu dituzte eta haiek ere hizkuntzaren erabilera ez-sexista erabiltzen saiatu dira. Ere ikusi da gatazkaren bat egon bada, indarkeria ez dela erabili behar, konpontzeko espazioak erraztu dituztela dialogoaren bitartez.

Horren ildotik iragarki bakoitzak zein mezu zeukan aztertu dute, eta ondorioz, zer kritikatzten den ere adierazi dute. Egia da batzuk ez dutela ulertu nola antzezten diren iragarkien gidoiak, baina guztiek interneten eta sare sozialen zabalkundea oso handia dela ulertu dute. Baina esan beharra dago, jarduera desberdinak egin izanez gero eta hau guztia oinarri sinpleago batetik landu izan bada, adibidez matxismoa zer den azalduz, hobeto ulertu izango zuten. Baina gizartean hain sartuta dagoen gaia denez eta ikastetxeetan hainbat modutan lan egin denez, gai sinpleago batetik hastea ez zela beharrezkoa uste zen, baina bai izan zen garrantzitsua lantzea. Modu desberdin batean hasten den proiektu bat emaitza berera bidera daiteke, baina kasu honetan, adibidez, modu desberdinetan has daiteke eta modu ezberdinean amai daiteke ere bai. Orokorrean, ikusi da izan diren arazo guztietarako esperientzia polita izan dela, eta emaitza nahikoak izan direla.

Eskolarentzat garrantzitsua da gai horiek martxoaren 8ko astetik kanpo lantzea, horrela umeei modu feministan, inklusiboan eta sozialean irakatsi ahal zaielako. Horrez gain, beste klase batzuekin ere lan egin ahal izateak oso erreal sentiarazi egin daiteke, ikusten delako egin den lana edo zer egiten ari den beste klase batzuei interesatzen diela eta, beraz, askoz pertsona gehiago laguntzen duela. Baina arazo batetik abiatuta, zentzuzkoa da laguntzea, eta agian beste klase batzuetan ez dago arazo hori, baina pertsona guztiak berdin tratatu behar direlako pentsamendua indartu dezake.

Lortutako emaitzak aplikagarriak eta baliotsuak dira proiektu honetan aurrera egin ahal izateko. Proiektu hau lau fasetan oinarrituta dago, eta fase horietako asko hobetu daitezke. Adibidez, planteatu diren jardueren galdetegietan oso galdera zabalak izan dituzte, eta horrek ikasleei asko lagundu ez die, galdera zabalak ez dituztelako maiz erantzuten. Izan ere, gauza berria da, eta berriak askotan huts egiten du, ez baitu besteko esperientziarik ondo edo gaizki atera jakiteko. Aurreko paragrafoetan aipatutako faseak, helburu batzuetan oinarrituta egon dira. Orduan, planteatu egin den helburu batean oinarrituz, modu feministan hezteka da. Honek, hizkuntza eta jarrerak asko zaintze eta mikromatxismo berriak sor ez daitezela esan nahi du. Azken ideia honekin kontuz ibili behar da, konturatu ere egin gabe, mikromatxismoak sortu ahal direlako. Horretarako, irakasleek feminismoaren inguruko prestakuntzak izango badituzte, horren inguruko mezua hobeto zabalduko zen.

Irakasleek modu feministan edukiak landu behar dituzte eta horrela irakasten dute alderdi askoetan. Hori da historiaren kasua, emakume gutxi agertzen baitira historian pertsona garrantzitsu bezala. Horrek gizartea ikusteko modu desberdinak egon ahal liratekela esan nahi du, eta arrazionalizatu eta dibagatu, eta azkenean irakatsi egiten dira. Baina kasu honetan, Irakasle bakoitzak gai honen inguruko informazioa eskura dezake eta era pertsonala ematen badio, gauza handiak egin ditzake, adibidez, iragarki matxistak lantzea, eta lehen hezkuntzako eskola batean desmontatu ahal izatea.

Bestalde, landu ahal den beste helburuetako bat kaleetan matxismoak gaur egun ere jarraitzen duela konturatzea da, eta ez dela iraganeko gauza bat, hasieran ikasleek uste zuten bezala. Horrela, lan egin da eta jarrera horiek oraindik ere badaudela gaur egun konturatu dira. Izan ere, iragarki matxistak ekartzeko eskatu zitzaizkenez, orain dela urte gutxi batzuk ere bazeudela konturatu ziren. Horrek esan nahi du konturatu direla jardueraren hasieran galdetu zaienez ea matxismoa existitzen den, ezetz esan zutela, hori iraganeko kontua zela, eta orain ez dagoela. Baina oraindik matxistak diren iragarkiak daudela ikusi dutenez, azkar aldatu dute iritzia. Oso garrantzitsua izan da aldaketa hori aurrera egin ahal izateko eta matxismoa desagerrarazteko asmoa dagoela ondorioztatzeko.

Egin dituzten jardueretan ere bai ikusi da jarduera hau modu askotan landu daitekeela, pertsona horiek maila edo adina edozein izanda ere. Aipatu beharra dago modu askotan egiteko pentsatu dela estereotipoen gaia lantzea. Baina, azkenean bakoitzaren gorputzarekin, hau da, gorputz-keinuekin eta beste moduekin landu dela. Adibidez, koloreekin, marrazkiekin, bideoekin, antzerkiekin edo forma askorekin. Azken finean, modu askorekin landu daitezke. Hala ere, pertsona guztiak ulertzea zer den estereotipoaren esanahia zaila izan da, nahiko korapilatsua bihurtu egin delako.

Mutilek eta neskek bereizitako jardueren emaitzei dagokienez, gelako neskek erreakzionatu ahal izan dute ikasgelan gertatu den edozein mikromatxismoren aurrean. Izan ere, ikusi da jarduera hori izan dela, hain zuzen ere, neskek eskua altxatzeko eta egungo egoerari buruz zer pentsatzen duten esateko. Oro har, ordea, mutilek beren generoaren aurkako erasotzat jo dute, neskei garrantzi handiagoa daukatela pentsatu dutelako, eta erasotuak ere sentitu dira mundu guztiak feminista izan beharko lukeela esan denez. Agian taldean lan asko egiten ez dutelako edo mutilak mutilekin jolasteko edo zerbait hartzeko bakarrik elkartu daitezkeela uste dutelako izango da. Ondorioztatu da nire gelako mutilek ez dutela egoera hori onartzen jakin, baina beste klase batzuetan, berriz, modu egokian eraman dute. Era

berean, beste klaseko mutilek jarrera egokiagoa izan da, taldearen harremana hobea delako, ikasle guztien artean jolasten, hitz egiten eta egoten direlako.

Lanari dagokionez, dagoen salbuespenezko egoera honetan, egoera berak zailtasun gehiago gehitzen dizkio egin nahi den jarduera orori; hau da, talde txikiak egiteko orduan, kontuan izan behar da non esertzen diren. Ondoren, nolabaiteko jardueran inguruan egon diren beste pertsonen informazioa eman ahal izateko, baldin eta Covid 19 kasuren bat badago. Orduan, lehen zaila bazen jarduera bat planifikatzea orain oztopo gehiago jartzea, edo ahalegin handiagoa egin behar da behar bezala egiteko.

Lan orok prozesu bat du eta askotan begirada jarri behar zaio atal txikiei. Jarduera honen prozesua oso zaila izan da, eta oztopo asko egon dira. Alde batetik, lehenengo ideia ez zegoen oso argi ikusten zer gai egin beharko zen praktikak hasi arte. Baina, mikromatxismoekin arazo bat zegoela identifikatu zen klasean. Hori baino lehen, maskulinitate berriak eta gizonek feminismoan duten kokapena landu nahi zen, Lehen Hezkuntzan edo beste etapetan lantzeko gai izan zitezkeenak.

Aurreko paragrafoan azaldu diren gaiak modu askotara landu daitezke, baina elementu teknologikoak (telebista, adibidez) erabiliz mikromatxismoak hobeto landu ahal ziren. Esan beharra dago, mutilek mikromatxismoak daudela askoz errazago konturatzen direla eta feminismoan izan behar duten posizionamendua gehiago kostatzen zaiela barneratzea. Izan ere, zer posizionamendu izan, feminismoa zer den eta zergatik egiten den ulertu behar dute. Landutako proiektua egiteko, izandako denbora baino askoz gehiago beharko litzateke. Horregatik erabaki zen telebistako iragarkietan mikromatxismoak landu behar direla, pertsona gehienek telebista bat etxean dutelako.

5.2 Hobekuntzarako proposamenak

Emaitzak ikusita eta prozesua aztertu ondoren, alderdi asko hobetu daitezke, etorkizunean jarduera hauek agertu ahal diren akats berberak ez egiteko.

Ikasleei hasieran estereotipoak zer diren ulertzea asko kostatu zaiela ikusita, istorioren bat kontatzea aproposena izango litzateke. Haiek zer diren ulertzeko askoz denbora gehiago gehituz eta erabiliz gero, hobeto has daiteke jarduera. Erabili izan den power point-a eta

bideoak egokiak dira baina, askoz informazio gehiago erabili beharko litzateke estereotipoak direla hasieratik ulertzeko.

Hala ere, alderdi askotan bakarka eta taldean lan egin izanak asko merezi izan du. Baina faltan izan da eztabaida talde txikietan egitea eta gero gela osoan estereotipoak zer diren pentsatzea, hau da, lehenik eta behin banaka pentsatzea zer diren, talde txiki batekin partekatzea eta gero eztabaida sortzea, pertsona bakoitzak gai nagusiarri buruz zer pentsatzen duen aipatzeko. Gainera, bigarren jardueraren hasieran, ordenagailuak hartu zituztenean, denbora asko galdu zuten, eta klase osoa ez zen adi egon edo bidalitako lana egiten egon, uste baitzuten ez zuela merezi gelako lana erabiltzeak eta ez baitzuen hasieran notarako balio. Oso lan baliotsua izan da, eta ez dute nota bat jaso behar eskolan, baina aldatu egin behar dute hurrengo ideia: nota jasotzeko ez bada, ez diote kasurik egiten lanari.

Etorkizunean, esku-hartze honen diseinua eta planteamendua egokia izan da ere ezagutza akademikotik at dauden dimentsioak lantzeko. Gutxietan estereotipoen eta iragarki matxisten inguruko gaiak landu izan dira. Baina, aukera ona izan da lehenengo momentutik mikromatxismoak zeudela nabaritu delako. Ondorioz, proposamen didaktikoa praktikan jartzerako orduan, proposatutako ekintzetan, helburuak lortzeko zuzenduta daudela ikusi da. Hala ere, ikasleek eragin handia daukate, haiek proiektuaren parte hartzaile zuzenak direlako. Kasu honetan, jarrera anitzak egon arren, emaitza nahiko berdintsuak atera dira. Azken ideia honek, etorkizunerako, gai hau edozein testuingurutan landu ahal dela balio du. Izan ere, pertsonen jarrera hartu behar da kontuan, eta ez haiei buruz eman daitekeen irudi hutsa.

6. BIBLIOGRAFIA

Arenzana, D. (2019). *Importancia de las Redes Sociales en la actualidad..* <https://kiwimbi.com/importancia-redes-sociales-actualidad/>

Bazanfio [Bazanfio] (2010eko azaroaren 22a). *Recuerdos TV: Anuncio coñac soberano (Machista)*. [Bideoa]. Youtube. <https://youtu.be/F49lf5qxKC4>

Berger, J. (1972). *Modos de ver*. Penguin Books

Camacho, J. (2019). *La importancia de las Redes Sociales en la sociedad*. <http://med360.es/la-importancia-las-redes-sociales-la-sociedad/>

Cuella, C. (2020). *Tips para verificar fuentes y contenidos en Internet*. <https://www.seoinhouse.es/tips-verificar-fuentes-y-contenidos-en-internet/>

Dominguez, Y. (2018). *Hola, soy tu machismo*. <https://yolandadominguez.com/portfolio/hola-soy-tu-machismo/>

Dominguez, Y. (2021). *Maldito estereotipo: así te manipulan los medios y las imágenes*. Penguin Books

Fernandez, R. (2013). *La educación, base de la sociedad*. <http://blog.uclm.es/ricardofdez/2013/03/13/la-educacion-base-de-la-sociedad-reflexion/>

Fernando de Córdoba [Fernando de Córdoba] (2018ko apirilaren 24a). *Anuncio lavavajillas - machista (1991)*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=ZKq9aFRyJew>

Giza Eskubideen Nazio Batuak (2014). *Los estereotipos de género y su utilización*. <https://www.ohchr.org/sp/issues/women/wrgs/pages/genderstereotypes.aspx>

Han, B. (2015). *La salvación de lo bello*. Argentina: Herder

Hernandez, I. (2000). *Análisis de la legislación vigente en materia LGTBI**. <https://fe.ccoo.es/78feeb897dc13dcd9b9ace46d1c2b902000063.pdf>

Jose Antonio Andreu Fernandez [Jose Antonio Andreu Fernandez] (2018ko urtarrilaren 21a). *DETERGENTE TUL*. [Bideoa]. Youtube. <https://youtu.be/sPNQGMWsmo>

Kanariasen Gobernuak (2015). *Buenos usos y malos usos de internet y los dispositivos digitales en general*. <http://www.peremarques.net/habilweb2.htm>

Kioskerodelantifaz [kioskerodelantifaz]. (2009ko urriaren 28a). *Soberano, es cosa de hombres*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=zBBL3bakb8&t=29s>

- Lafon, z. (2017). *¿Qué es la Cultura Visual?*. <http://www.elarteporelarte.com/blog/cultura-visual/que-es-la-cultura-visual/>
- Marta Dalmau [Marta Dalmau]. (2016ko otsailaren 7a). *Anuncios machistas*. [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=4O-g9jXuJm0>
- Mas Delblanch, M.D. (2020). *Adicciones tecnológicas: internet, móviles y redes sociales*. <https://www.isep.es/actualidad-psicologia-clinica/adicciones-tecnologicas-internet-moviles-y-redes-sociales/>
- Micramara [Micramara] (2019ko martxoaren 3a). *El Retrovisor: Anuncios machistas*. [Bideoa]. Youtube. <https://youtu.be/lhMaUov-nTM>
- Navarro, R. (2017). Estas mujeres están revolucionando la fotografía feminista. *El País*. https://elpais.com/elpais/2017/02/06/tentaciones/1486375539_238369.html
- Ngozi Adichie, C. (2014). *Todos deberíamos ser feministas*. Literatura Random House
- Ortega Mota, A.M. (2016). *Feminismo en la escuela*. <https://cuartopodersalta.com.ar/feminismo-en-la-escuela/>
- Pino, A.M. (2017). *El tratamiento de la igualdad de género en un contexto educativo multicultural*. TheTreatmentOfEquityOfGenderInAMulticulturalEducat-5891300.pdf
- Rheingold, H. (2012). *La comunidad virtual*. Gedisa editorial.
- Seara, M. (2020). *Feminismo en la escuela. Voces visibles*. <https://www.vocesvisibles.com/feminismo-en-la-escuela/>
- UMB virtual (2019). *La importancia de las Redes Sociales en la sociedad actual*. <https://umbvirtual.edu.co/la-importancia-de-las-redes-sociales-en-la-sociedad-actual/>
- Valera, N. (2016). *Educando en igualdad*. <https://www.educandoenigualdad.com/wp-content/uploads/2016/03/Enero2016.pdf>

7. ERANSKINAK

7.1. Maskulinitasun hegemonikoaren esanahia eta ondorioak ulertzen galdetegia

IZENA: _____ DATA: _____

Lehenengo pausua.
Maskulinitasun hegemonikoaren esanahia eta ondorioak ulertzen

Erantzun hurrengo galdera hauek:

- Nola sentitu zara argazki berean edo desberdinetan gizonen eta emakumeen arteko aldea ikustean?
- Zergatik uste duzu gertatzen dela hau?
- Zer da zuretzat estereotipo bat?
- Zein koloretakoa da neska-mutilek janzten dugun arropa?

7.2 Iragarkiak desmontatzen galdetegia

IRAGARKIAK DESMONTATZEN

- Nola agertzen dira gizonak? Zer papera dute gizonak?
- Nola agertzen dira emakumeak? Zer papera dute emakumeak?
- Zer iruditu zaizkizu bideoak?

7.3 Hirugarren jarduera

7.3.1 Hirugarren jardueraren analizatzeko erabili den gidoi bat

Non gertatu?

- Etxean
- Dendan

Nortzuk?

- Dendari bat
- 3 emakume




Zer?

- Ya hay dos Ariel para lavar a mano y en lavadora no automática el ariel de siempre. Y para automáticas por fin Ariel automática. compre Ariel automática porque yo tenía el problema de los cuellos de las camisas de mi marido que trabaja en el astillero. hay mucho polvo en mucha grasa y no había manera de quitarlo de ninguna forma y desde que uso Ariel automática pues me ha resuelto el problema, en todas las ropa noto la blancura
- se lo contó a alguien? a mi vecina Carmen
- Ariel automática me recomendó una vecina mía, yo tengo dos niños pequeños y se ponen muy sucios. Pero con Leire automática y las camisetas en los niños devuelven la blancura que tenían antes.
- y a quién se lo dijo? a mi amiga Josefa
- ya hay dos Ariel el de siempre y ahora la blancura de Ariel en su automática

7.3.2 Hirugarren jarduera ebaluatzeko erabili den taula

Bikotea:		
Ebaluazio adierazleak	BAI	EZ
Gaia aurkeztu du		
Gidoia ikasi du		
Interesa adierazi du		
Errespetua sustatu eta adierazi du beste ikaslearekiko		
Talde lana sustatu du		
Mozorratu da		
Beste bideo batean parte hartu du		

7.4 Laugarren jardueren kartelak





7.5 Jarduera guztiak egin eta geroko azken galdetegia: “Zer ikasi dugu?” galdetegia

IZENA: _____ DATA: _____

ZER IKASI DUGU?

- Zer da zuretzat estereotipo bat?
- Zein koloretakoa da neska-mutilek janzten dugun arropa?

IRAGARKIETAN.....

- Nola agertzen dira gizonak? Zer papera dute gizonak?
- Nola agertzen dira emakumeak? Zer papera dute emakumeak?

7.6 Lehenengo jardueran adibide moduan erabilitako iragarkiak



Coñac Soberano (1968)



Cocina corcho (1960)



Suavizante Flor (1987)



Detergente Tul (1980)

7.7 Jarduerak garatuta

1. jarduera: IRAGARKIAK DESMONTATZEN
Iraupena: Ordu erdi
Materiala: Orri txikia, pantaila digitala, arkatzak edo boligrafoak
Helburua(k): Zer funtzio daukaten emakumeek eta gizonak aipatzea
Azalpena: <p>Lehenengo jarduera honetan, bideo batzuk ikusiko dira eta zer funtzioa daukaten agertzen diren pertsonaiak aipatzeko orrialde bat banatuko zaie.</p> <p>Ondoren, egon den maskulinitasuna ikusi beharko dute ikasleek, eta maskulinitasun tradizionalaren edo hegemonikoaren kontzeptura hurbiltzen hasiko dira. Modu honetan, zer papera duen genero bakoitzak aipatuko dute, iragarki matxista batzuk ikusi ondoren.</p> <p>Gero, bideoak ikusi ondoren, ikasle guztiei orri bat pasatuko zaie eta bete egingo dute, behean agertzen diren galderak erantzuteko. Gero, nahi duenak zer idatzi duen kontatzeko aukera izango du, guztiokin partekatzeko eta iritzi desberdinak entzuteko.</p>
Galderak: <ul style="list-style-type: none">- Nola agertzen diren gizonak? Zer papera dute gizonak?- Nola agertzen diren emakumeak? Zer papera dute emakumeak?- Zer iruditu zaizkizu bideoak?
Irakaslearen laguntza: (erantzun posible batzuk) <ul style="list-style-type: none">- Gizonak: indartsuak, dirua ekarri etxera, familia babestu, ez du inoiz negar egiten, autoritarismoa- Emakumeak: tristura, ahulezia, gizonen menpe, etxean egon <p>Marta Dalmau (2016) https://www.youtube.com/watch?v=4O-g9jXuJm0</p>
2. jarduera: Bakoitzaren iragarkia analizatu
Iraupena: Ordu erdi
Materiala: Ordenagailuak, arbela digitala

Helburua(k): Iragarkiak gaur egun ere matxistak dira, eta ez lehen gauzaren gertakari bat izaten

Azalpena:

Aurreko klasean, sare sozialetan ikusi duten edo bilatu duten iragarki matxista bat ekartzeko eskatu zaie. Bideo-esteka hori banaka eskatuko da, klaseko pertsonen artean aniztasuna egon dadin eta bideo desberdinak eskuratzeko. Baina, iragarkien errepikapena ekiditzeko, "google documents" orri batean idatziko dute bere iragarkiaren izena.

Esteka hori ekarri eta dokumentu batean itsatsi dutenean, ikasle guztiek ikusiko dute klasean iragarki batzuk, eta galdetuko diote bere buruari ea zergatik den matxista eta zergatik aukeratu den.

Iragarki bakoitzaren amaieran, zer ikusi duten aipatuko dute, eskua altxatuz eta beste txandak errespetatuz.

Galderak:

- Zergatik uste duzu matxista dela?
- Zergatik aukeratu duzu?

Irakaslearen laguntza: (erantzun posible batzuk)

- Emakumearen papera oso gutxietuta dagoelako
- Garrantzitsua da haien jarrera ikustea, une horretan zer sentitzen duten adierazten dutelako.

2.1 jarduera: iragarkiei buelta bat ematen

Iraupena: Bi ordu

Materiala: Ordenagailuak, orriak, boligrafoak, aurikularrak

Helburua(k): Iragarkiko transkripzioa aldatzea eta beste generoan ipintzea

Azalpena:

Ikasle bakoitza bere alboan eserita dagoen pertsonarekin jarriko da haien iragarkiak aztertzeko. Orduan, pertsona bakoitzaren bideoetan matxismoaren zergatia aztertu eta identifikatu ondoren, iragarkian agertzen den gidoia beste generoarekin aldatuko da, hau da, emakume batek esaten dituen esaldi guztiak gizon batek esango ditu, eta alderantziz. Horrela, ikasleak ohartuko dira oso arraroa dela gizon batek horrelako astakeriak esan ahal izatea eta beti emakumeak izatea hori esaten dutenak. Hala ere, paper batean idatzi beharko dute iragarkian eta elkarrizketetan gertatzen den guztia. non gertatu den, nortzuk parte hartzen duten eta zer esaten duten eskatuko zaie.

Amaitutakoan, bestearen bideoa ikusiko dute eta prozesu berdina egingo dute. Gero, guztien aurrean hitz egin eta eztabaidatu beharko da zergatik aukeratu den bideo hori. Amaitu ondoren, irakasleari emango zaio egindako lana, eta honek ebaluatuko du lana.

Talde batek lana bukatu eta denbora soberan badu, beste iragarki bat analizatzea eskatuko zaio, horrela hurrengo faserako aukera gehiago izango ditu analizatutako iragarki bat interpretatzeko, hau da, hiru iragarki analizatu baldin badu talde horrek, horietatik bat aukeratuko du.

Galderak:

- Zer pertsonaia daude?
- Zer lekutan daude?
- Zenbat pertsona daude?
- Zer esaten dute? (traskripzioa)

3. jarduera: Antzerki edo bideo baten bidez, kritika sortzen

Iraupena: 2 ordu

Materiala: Libre: mozerroak, kartelak, apaingarriak

Helburua(k): Genero lanketa bat egitea

Azalpena:

Iragarki bakoitzaren gidoiak landu ondoren, eta pertsonaien generoa aldatu ondoren, iragarki hori klasean egin beharko dute, edo, bestela, bideo bat grabatzeko aukera izango dute, iragarkiaren berri emanez, hau da, bideoaren iraupenaren antzerki bat egin beharko dute. Iragarkia behar bezala egin ahal izateko, behar duten material mota oro erabili ahal izango dute. Adibidez: atzealdeko pantaila digitala erabiltzea nonbaiteko eszena bat jartzeko eta, horrela, iragarkiaren lekua islatu ahal izateko.

Jarduera horretan, bikoteko bi pertsonak ez ezik, iragarkia behar bezala egin ahal izateko estra gisa behar duten pertsona guztiek ere egin ahal izango dute iragarkia. Orduan, behean agertzen den orrian, jarduera honen hainbat puntu baloratuko dira, hau da, ez bakarrik eszenaratzean edo gidioa ikastean, baizik eta beste kide batzuen kanpoko laguntza, ahalik eta errealena gera dadin.

Bideo eta antzerki guztiak ikusi ondoren, behean agertzen den galdera erantzungo dute, jarduera desberdin hauek egin ondoren umeen interesak gai batekiko handitu egin ahal direlako.

Galderak:

- Nola sentitu zara zure antzezpena eta besteenak ikusi ondoren?

EBALUAKETA FITXA

Gidoi bat oinarri hartuta ikerketa bat sortzea, irgarkiaren behaketa egitea eta zein den horren helburua azaltzea. Ulertu ondoren, iragarkia interpretatzea generoak alderatuz.

Lanaren estrategiak aplikatzea zereginak eta antzezpena egitean.

Bideoaren, antzezpenaren eta haiek biltzen dituzten elementuen oinarrizko ideia eskuratzea.

Matxismoak eragiten dituen desberdintasunak eta horiek neurtzeko erabiltzen diren tresna mota honi kritika bat sortzea.

Interesa eta gogoak azalaraztea, behar den arreta eta errespetua eskainiz.

Koordinazioan eta talde lanean oinarritzea, beste talde batzuen laguntza jasoz, bere antzezpenean parte ahal izateko.

4. jarduera: Iragarkiak irudikatuz

Iraupena: Bi ordu

Materiala: Kartulinak, artaziak, itsasgarria

Helburua(k): Iragarkiaren irudi bat marraztea eta margotzea, modu bisualean hobeto ikusteko bere mezua zein den kritikatzuz

Azalpena: Behin antzerki guztiak egin eta bideo guztiak ikusi ondoren, azken fasera pasatuko gara. Fase horretan, iragarki hori irudikatu eta kritika bat egingo dugu, beste iragarki batean agertzen zenaren kontrako mezu batekin. Kritika konstruktiboa egin ahal izateko minutu batzuk utziko dira erretratu bakoitzaren atzean zer jarri pentsatu ahal izateko, hausnarketa moduan. Bilaketa hori errazago egin ahal izateko, irakasleak galdera bat egingo du (beheko aldean agertzen da) eta horrela taldeetan ideia guztiak eztabaidatu eta apuntatu ahal izango dira.

Mezu hori aurkitu ondoren, iragarkiaren zati bat aukeratu beharko da A3 folioan edo nahi den materialean kaptura hori itsasteko. Une horretan, behar den denbora guztia utziko da, eta gainerako ikasgela eta ondorengo ordua, gelan lan egiteko.

Denbora hori igaro ondoren, irakasleak erabakiko du zer mezua jarri marrazki guztietan. Horrela, lelo bat sortuko da idazteko eta, horrela, irakurri ditugun mikromatxismoen aurkako borroka hau, konturatzen ez garen beste alderdi batzuk bezain agerian eta eskura dagoela gogorarazteko.

Galderak:

- Zein da zure iragarkiaren mezua? Eta zer mezua jarriko zenuke kritikatzeko?
- Zein izan da atal honetako gustatu zaizun parterik garrantzitsuenak?
- Nola sentitu zara jarduera hau egin ondoren?

Ebaluazio irizpideak

- Errespetua sustatu du, isiltasuna mantentzen eta materiala zaintzen, giro ona sortzeko
- Jardueran parte hartu du, irakasleari eta beste ikaslideei entzuten
- Kartela egin du, talde lana sustatuz, inor alde batera utziz.

7.8 Ikasleek erantzun dituzten galdetegiak

1. galdetegia	
Galderak	Erantzunak
Nola sentitu zara argazki berean edo desberdinetan gizonen eta emakumeen arteko aldea ikustean?	Gaizki (13); desberdintasunak ez dira sentitu behar; txarrak dira; oso desberdinak dira; haserre; gezurra da, emakumeek indarra berdina daukate; mutilak indartsuak bezala ipini; arraroa.
Zergatik uste duzu gertatzen dela hau?	Matxismoa dagoelako (9); oraindik daude pertsonak uste dutela 2 genero daudela; Beste batzuk uste dutela hobeak direla; Antzinean maskulinitasun asko zegoelako; berdintasuna oraindik ez dagoelako; duela urte asko hori gertatzen zelako (5).
Zer da zuretzat estereotipo bat?	Rolak (4); generoaren estiloa (3) deskribapena; konparaketa (3); neskak ez daudela denbora guztian sukaldean eta neskak ez dira mutilak baino ahulagoak; gezur bat (2); pertsonalitatea (3).
Zein koloretakoa da neska-mutilek janzten dugun arropa?	Edozein arropa; kolore guztikoak (2); nahi duguna (10); guztiak; koloretsuak, "batzuk esaten dute arrosa neskena eta urdina mutilena dena baina koloreak eta arropak ez du generorik", denetarik; ez dago kolorerik, kolore guztiak mutilak jantzi eta neskak ere bai; pertsona bakoitza nahi duen koloretakoa, ez dagoelako generorik.

2. galdetegia	
Galderak	Erantzunak
Nola agertzen dira gizonak? Zer papera dute gizonak?	Prakekin; trajearekin (3); sofan; egunkaria irakurtzen; ezer egiten (4); hoberenak bezala (hori ez da egia); erregeak bezala (3), boteretsuak; etxeko gauzak egiten; lana egiten; harropuzak; enpresarioak; indartsuak; lan handia egiten dutela somatzen da; nekatutak; eserita; alferrak; agintzen (2); emakumeari esaten zer egin (3); emakumeak baino gehiago; ondo jantzita (2); emakumeak haien menpe; lasaiak.
Nola agertzen dira emakumeak? Zer papera dute emakumeak?	Mutilek neskak erabiltzen dute pozik egoteko; garbitzaileak, zerbitzariak; etxeko andrearen papera zuten (2); alkandora txuriak; sukaldatzen (3); janaria egite; lana egiten; kriadak; zerbitzariak; emakumeak etxeko emakumeak dira; makilatzen; etxeko lanak egiten (6); indartsuak; feministak, gizonaren atzean egoten dira; altxatuta; esklaboak; delantalarekin (2); bere senarrari gauzak egiten(2); soinekoarekin (2); gizona ondo sentitzea; etxeko lan guztiak egitea.
Zer iruditu zaizkizu bideoak?	Gaizki (10); txarra ii; zaharra, matxistak(9); mutilek ere gauza horiek egin behar dute; emakumeak beti lan egiten (4); beti gizonak agertzen direlako lehenengo paperean; emakumeari ez diote uzten gizonazko gauzak egiten; emakumea sukaldean eta gizona ez; entzun du "goazen emakumeak laguntzera"; umeari zaintzen; garbitzen; dena egiten; horrela ez dira emakumeak tratatzen; gizonak lasai egon.

3. eta azken galdetegia	
Galderak	Erantzunak
Zer da estereotipo bat?	Ez daki (4); rol aldaketa, rolak (4), deskribatzen duen gauza baina ez da beti egia; bi sexuak egiten dutena, gauza errealak ez direnak; berdinak garela; mina egin nahi duzunean esaten duzu estereotipoak; irainak; batzuetan neskek egiten dute gauza bat eta mutilek ez; pertsona izateagatik zerbait egin/izan; gauza berdinak egin eta beste batzuk ez (2); mutilak ez dira beti indartsuak eta neskak ez dute beti negar egiten(2); ez dago bakarrik etxeko ama, baizik eta ere etxeko aita; pertsona baten estiloa; mutilen eta nesken desberdintasunak (2); gauza bat egin behar dela modu batean eta ezin dela beste batean egin; pertsona baten sentimenduak.
Zein koloretakoa da neska-mutilek janzten dugun arropa?	Nahi dugun koloretakoa (14); ez daude koloreak genero bakoitzarako (7); bakoitzari gustatzen zaiona, guztiak (2); neskena kolore batzuk eta mutilena beste (2).
Nola agertzen dira gizonak? Zer papera dute gizonak?	gizonak agintzen (4); indartsuak, aberatsak; hoberenak, boteretsuak; gizonak amerikanarekin; prakekin; ejerzitoa; "follatzen"; garrantzitsuak; ezer egiten (4); matxistak; egunkaria irakurtzen; lan gehiago; ondo jantzita(6); eskatu emakumeari(5); haserre mutilak; ez dago paperik; eserita; alferrak; sufriarazten du emakumea; nagusiaren papera.

Nola agertzen dira emakumeak? Zer papera dute emakumeek?

Etxean; etxeko gauzak egiten (2); zerbitzariak (2); gonarekin; gizonak begiratzen; dena egiten; etxeko andreak; lan egiten (8), lan gutxiago; etxeko arroparekin; egiten dute gizonaek esaten dutena (5); gonarekin (3); garbitzen (5); gomendatzen detergentea; triste eta dena egite; ez dago paperik; sumisas; langileak; sukaldatzen.

7.9 Lehenengo jardueran erabili den power pointa

Lehenengo pausua.

Maskulinitasun hegemonikoaren esanahia eta ondorioak ulertzen.






Maskulinitatea gizonen lotzen diren portaera, jarrera eta rolen multzoa da. Maskulinitatea erakuntza sozial eta sinboliko bat da, eta ondorioz bereziki egin behar da alde batek maskulinitatea, erakuntza sozial gisa, eta besteak, gizonaren sexu biologikoa. Maskulinitatea eta generoa bereiztea beharrezkoa da baita. Uzun erre, maskulinitateak genero identifikazioa eta generoen arteko adierazpenekin (edo espresoarekin) du zerikusia. Guzti horien arteko problema da, hain zuzen ere, emakume bati genero eta gaitate maskulinoak izatea.




Tradizionalki gizonen berezko ezaugarri gisa zenbait ezaugarri atxikitu zate: ausardia, independentzia edo aserbitasun besteak beste. Baina, ezaugarri hauek testuinguru historiko, sozial eta kulturalaren arabera aldatu daitezke [1]. Horregatik, aurrerik ezaugarriak gen, beste ezaugarri asko atxikitzen zate tradizionalki gizonen: gizonetara, arrotz, aserbitasun, intelektualtasuna, segurtasuna, amonakaltasuna, boteretsua erabileria, emozio eta afektibitatearen auto-erregulazio, gharriak eta gaitasun intelektualak izatea eta abar. Horietatik, ondoren, gizonen sozializazio prozesuan ezaugarri hauek eragina dute, eta gizon batzuk bereratu egiten dituzte, baina batzuk ez dituzte berrantolatzen eta beste batzuk maskulinitatearen eta feminizitatearen arteko transtioan daude genero identitatea eta esprezio ez direlako estatistikoak.

Gizonen presio sozial handia jasaten dute aurrerik ezaugarri hauek araberan moldatzeko, alegia, askenaren gizon hori gizonetz espero dena (fidela, indartsua, arrazionala eta abar izatea) bilatzeko. Horregatik, aspektuak sozial horiek belduzko ez direnean eta berrak maskulinitate diskriminazioen bidez egiten dituzte, jarrera belduzko, diskriminazioak eta erregulazioak agertzen dira. Hala ere, erregulazioa eta diskriminazioa akribatu egiten dira [2].



HERACLES





7.10 Lehenengo portadaren lehenengo argazkia

